

HISTORIAURREA

IKUSI BIDEO HAU:

<https://www.youtube.com/watch?v=Sw-SO3WTxAc&t=48s>

ERANTZUN GALDERA HAUEK?

(HISTORIAURREA):

- ❖ Zein dira Historiaurrearen aldiak?
 - a) Paleolitoa, Neolitoa eta Metalen Aroa
 - b) Paleolitoa, eta Neolitoa.
 - c) Mesolitoa eta Kanbrikoa.
 - d) Aurreko erantzun guztiak gaizki daude.
- ❖ Gure bideoan agertu ez den arren, Historiaurreak badu beste aldi bat. Zein da? Aurkitu interneten.
- ❖ Noiztik nora luzatzen da Historiaurrea?
 - a) Gizakia sortu zenetik gaur egun arte.
 - b) Gizakia sortu zenetik idazkera azaldu zen arte.
 - c) Munduaren sorreratik gaur egun arte.
 - d) Dinosaurioak sortu zirenetik desagertu ziren arte.
- ❖ Noiz amaitzen da Historiaurrea?
 - a) Jesus jaio zenean.
 - b) Idazkera asmatu zenean, hau da, K.a. 4000 urte inguruan.
 - c) Neolitoa amaitzean.
 - d) Historiaurrea oraindik ez da amaitu.

(PALEOLITOA):

❖ Noiz amaitzen da Paleolitoa?

- a) Metalen Aroa hastean.
- b) K.a. 8000. Urtean.
- c) K.a. 3200. Urtean.
- d) Sua asmatu zutenean.

❖ Aukeratu erantzun zuzena.

- a) Paleolitoan nomadak ziren, hau da, leku batetik bestera mugitzen diren.
- b) Paleolitoan sedentarioak ziren, hau da, leku berean bizi ziren.

❖ Aukeratu erantzun zuzena.


- a) Paleolitoan ehiztari eta fruitu biltzaileak ziren.
- b) Paleolitoan nekazari eta abeltzainak ziren.

❖ Non bizi ziren Paleolitoan?

- a) Kobazuloetan bizi ziren.
- b) Herri eta hirietan bizi ziren.
- c) Zuhaitzetan bizi ziren.
- d) Kanpinean bizi ziren.

❖ Paleolitoan labar artea agertu zen, hau da, kobazuloetan marrazten hasi ziren. Zer erabiltzen zuten margotzeko.

- a) Margoak.
- b) Ikatza eta lurra ura eta animalia koipearekin nahasita.
- c) Ikatza bakarrik.
- d) Ikatza eta lurra bakarrik.



❖ Adierazi egia ala gezurra den.

Paleolitoan animalien larruak janzen zituzten.	Egia	Gezurra
Paleolitoan burdinazko tresnak egin zituzten.	Egia	Gezurra
Paleolitoan aizkorak, labanak eta lantzak egin zituzten harriekin.	Egia	Gezurra
Paleolitoan nekazaritza eta abeltzaintza agertu ziren.	Egia	Gezurra
Kobazuloetan oreinak, bisonteak eta zaldiak marrazten zituzten	Egia	Gezurra

❖ Euskal Herrian badira Paleolito garaiko bi kobazulo garrantzitsu. Aurkitu informazioa Interneten eta aukeratu.

EKAIN

ALTAMIRA

SANTIMAMIÑE

EI PENDO

IRAKURRI TESTU HAU, ONDORENGO GALDERAK ERANTZUTEKO:

Ehizan eta bilketan oinarritzen zen Paleolitoko ekonomia, horixe baitzen gizakiek elikagaiak lortzeko zuten bidea. Janaria ez ezik, erregaia, jantziak eta tresnak egiteko lehengaiak ere naturatik lortzen zituzten. Ingurua oso ondo ezagutzen zuten. Garai haietan agertu gabe zeuden nekazaritza, abelazkuntza eta metalgintza.

Gizakiak taldean biltzen ziren ehizarako, fruituak biltzeko. Lana sexuen arabera banatzen zuten: emakumeak, umeen laguntzarekin, nagusiki fruitu, landare edota itsaski bilketan aritzen ziren eta gizonak, nagusiki, ehizan. Bilketarako eta ehizarako lurraldea, gehienetan, kanpalekuaren inguruan aurkitzen zen, 6-10 kilometroko erradioan. Noizean behin, taldeak kanpalekuz aldatzen zuen beharrekoak zituzten elikagaiak edo lehengaiak lortzeko beste leku batzuetara desplazatuz.

Batez ere, animalia belarjaleak ehizatzen zituzten; oreinak, zaldiak, bisonteak eta basahuntzak ezagutzen zituzten, eta, ehiza-teknika egokiak erabilita, nahikoa erraza zen haiek harrapatzea. Taldean ehizatzen zituzten eta lantzak urrunera indarrez botatzeko jaurtigailuak erabiltzen zituzten.

Kostaldean eta erreketan hezurrezko arpoiak erabiliz aritzen ziren arrantzan. Itsasoko arrainen aztarnaz gain, errekekako amuarrain, izokin, karpa eta aingirenak ere agertu dira aztarnategietan. Arpoia indarrez jaurti eta arrainaren gorputzean sartutakoan tira egiten zuen arrantzaleak; horrela, arrainari zaila egiten zitzaion ihes egitea. Arpoiari egurrezko kirtena jarri ohi zioten errazago jaurtitzeko. Kostaldean, itsaskiak hartzen zituzten: lapak, ostrak, karrakelak...

- ❖ Aukeratu Paleolitoarekin erlazionatutako bi hitz.

NEKAZARITZA FRUITU BILKETA ABELTZAINZA METALGINTZA EHIZA

- ❖ Adierazi Egia ala Gezurra diren.

a) Taldean bizi ziren.	Egia	Gezurra
b) Emakumeak bereziki ehizan ibiltzen ziren	Egia	Gezurra
c) Haurrak eta emakumeak fruitu eta itsaski bilketan ibiltzen ziren.	Egia	Gezurra
d) Batez ere animalia haragijaleak ehizatzen zituzten.	Egia	Gezurra
e) Hezurrezko arpoiekin arrantzatzen zuten.	Egia	Gezurra
f) Kostaldean lapak, ostrak eta karrakelak ere biltzen zituzten	Egia	Gezurra

(NEOLITOA):

- ❖ Aukeratu erantzun zuzenak. (8 erantzun zuzen daude).

- Neolitoan animaliak etxekotu zituzten.
- Neolitoan metalak lantzen hasi ziren.
- Neolitoan nekazaritza eta abeltzaintza agertu ziren.
- Neolitoan sedentario bihurtzen dira, hau da, leku berean bizi ziren.
- Neolitoa Paleolitoa eta Metalen Aroaren artean dago.
- Lehen herrixkak ibaien inguruan eraiki zituzten.
- Zerealak landatzen hasi ziren.
- Neolitoan nomadak ziren.
- Ahuntzak, txakurrak, ardiak eta txerriak etxekotu zituzten.
- Zeramika eta ehungintza asmatu zituzten.

IRAKURRI TESTU HAU, ONDORENGO GALDERAK ERANTZUTEKO:

Sinismenak (Creencias)

Nekazaritzaren sorrerarekin, izadiko fenomenoek ere (euria, eguzkia, ekaitza...) garrantzi handia hartu zuten. Gertakari horien jatorria ezezaguna zitzaien eta izadiaren indarrak jainkotu egin zituzten (eguzki, euria, hodeiak, trumoiak...); kultu-ospakizun eta eskaintzak egiten zituzten jainko-jainkosa horien mesedeak jasotzeko asmotan.

Nekazari-abeltzain gizarteetan denboraren zikloek garrantzia handia zuten Lurreko lanetarako, bereziki ereite-lanak (sembrar semillas) eta uzta biltze-lanak (recolectar) egiteko. Hau da fruitu eta barazkiak noiz erein eta jaso behar zituzten ikasi zuten.

Nekazari-abeltzain bizitzarekin lotura zuten elementuak ere sinesmen- eta gurtza-gai izaten ziren: landareen hazkundea ahalbidetzen zuten eguzkia eta euria, elikagai-iturri zen lurra, jangai ziren zerealak edo ganaduak, eta gisako elementuak jainkotu (convertir en dioses) egiten zituzten.

Hileta-errituak (ritos de muerte)

Neolito garaian Europako inguru atlantikoan, monumentuak hedatu ziren: trikuharriak, tumuluak, menhirrak edo zutarriak eta harrespilak. Trikuharrien funtzioa argi badago ere, hildakoak bertan ehorztea, beste guztien funtzioaren inguruan eztabaida nagusitzen da.



Trikuharria

Trikuharriak giza talde batek hildakoak ehorzteko lekuak ziren, panteoi kolektiboak, alegia. Mendetan eta mendetan barrena erabili ziren.

Trikuharriak harri bloke erraldoiekin egindako eraikin konplexuak dira; beraz, haiek eraikitzeak talde lan handia eskatzen zuen. Taldeko hildakoak bertan ehorzten zirenez, komunitate osoarentzat aparteko garrantzia izaten zuten.

Aipatu denez, sexu eta adin-talde askotako jendea ehorzten zen megalitoetan, ez ziren buruzagi handien hilobiak soilik. Horrek ez du esan nahi komunitate haietan erabateko berdintasuna zegoenik. Izatez, sarritan ikusi da hildako batzuk beste batzuk baino eskaintza-opari oparoagoak zituztela aldamenean, seguru asko, estatus sozial altuagoaren ondorioz.

❖ Esan egia ala gezurra den.

- | | | |
|--|------|---------|
| • Euria, hodeiak eta ekaitzak nola sortzen ziren ez zekiten. | Egia | Gezurra |
| • Naturako elementuak (euria, eguzkia...) jainkotu egin zituzten. | Egia | Gezurra |
| • Hildakoak trikuharrietan lurperatzen (enterrar) zituzten. | Egia | Gezurra |
| • Trikuharria bakoitzak berea eraikitzen zuen. | Egia | Gezurra |
| • Trikuharriak harri bloke handiekin eraikitzen zituzten. | Egia | Gezurra |
| • Trikuharriak leku garrantzitsuak ziren. | Egia | Gezurra |
| • Trikuharrietan buruzagiak (jefes) bakarrik lurperatzen zituzten. | Egia | Gezurra |

(METALEN AROA):

❖ Noiz hasi eta amaitzen da Metalen Aroa

- a) K.a. 3500. urtean hasi zen eta K.a 1000. urtean amaitu zen.
- b) Paleolitoa amaitzean hasi zen.
- c) K.a. 6500. urtean hasi zen eta K.a 4000. Urtean, idazkera asmatzean, amaitu zen.
- d) Erromatarrek etorri zirenean amaitu zen.

❖ Zer metal landu zituzten?

- a) Kobrea, brontzea eta burdina.
- b) Burdina bakarrik.
- c) Metal guztiak.
- d) Kobrea, estainua eta burdina.

❖ Nola lortzen zituzten metalak?

- a) Naturatik zuzenean hartu eta erabiltzen zituzten.
- b) Urtu egiten zituzten eta ondoren forma ezberdinak eman.
- c) Aztikeria bidez lortzen zituzten.

❖ Ordenatu:

BRONTZEA

BURDINA

KOBREA

1)

2)

3)

